

Lekuona eta "Aitzol"

In: Askoren artean: *Manuel Lekuona. Omenaldia. Andoain, 1988ko otsailak 20-27*, Andoaingo Udala, ENBA eta Kultura Batzordea, Andoain, 1988. [Omenaldiaren egitarauaren liburuxka].

Don Manuel Lekuona 1894an jaio zen Oiartzunen; don Jose Ariztimuño, bi urte gero, 1896an, Tolosan. Adinez ez zebiltzen, beraz, urrun. Gainera, biak ziren apaizak, nahiz eta don Manuelen bidea: Baliarrain eta Gasteizko seminarioak izan, eta don Joserena, berriz, Comillas eta Gasteizkoak. Honez gainera, biak ziren euskaltzale eta batez ere euskal kulturaren suspertzaile dinamikoak, egokitu zitzaizkien Elizako eta Politika giro berezietan baikor eta koraia handiz, etsi gabe, jokatu zutenak.

Ariztimuño, "Aitzol", gerratean eta itsuski eran zuten 1936an, eta Lekuona urtetan jarraikia izan bazen ere bizirik irten zelako izan dugu galdu berria dugunari Aitzolez galdetzeko aukera.

Oñatin 1918an eratu zen *Congreso de Estudios Vascosen* sorrerako egunetan ikusi zuen Aitzol, Nemesio Etxaniz (hau ere jarraikia izan zena) eta Jose Markiegi (hau erana izango zena) ondoan zituela. Hara zer irukotea! Aitzol oraindik Comillasen zegoen; hala ere, jakin, bai, bazekien tolosarra nor zen: "euskal gauzetan benetan oso sartua zebilena". Bi urte gero (1919-1920ko kursorako) Aitzol bota egin zuten Comillaseko Unibertsitatetik, eta hara don Manuelek jazarpen honetaz diona: "Garai hartan Jose Migel Barandiaran Parisera bidali nahi izan zuten, honen goimailako ikasketak aitzeki zirela; niri, berriz, Bizkaiko artxibo batera...; Aita Lhande josulaguna Frantziara itzulia bota zuten, hemendik.

Halaxe bota zuten Comillastik Aitzol, eskarmentu bezala.

Aitzolen izaera nolakoa zen galdetu nionean, hauxe esan zidan:

"Ez zen izango, nola esango dut... 'atrayente'; ez zen latza ere, baina hain zen egilea eta hain zen urduria eta egonezin horietakoa..., erakargilea ez zen, ez; burua zuen hark batez ere; zera zen, 'zerebrala'".

Don Manuelek nola ikusi zuen Comillastik Gasteizera etorri zenean, zer egin zuen bertan.

Batez ere Mixiolaritzako arduradun izan zen Aitzol Gasteizen, Sagarminagarekin batera: Secretariado Diocesano de Misiones sortu zutenean (1922) gotzaiaren ordezkari izendatzen dituzte biak Iruñeako Batzarrerako; *Revista de la Unión Misional del Clero*, gero *Illuminare*, sortzen direnean (eta 1929 arte) hor da Aitzol idazle; eta, batez ere, sortzen du lehen aldiz elebiduna den aldizkari bat: *Nuestro misionero / Gure mixiolaria* (1924-1929), eta euskarazko lanak, hasieran behintzat, don Manuelek itzultzen dizkio Aitzolen erderazkoetatik.

Guk Andoainen maitasunarekin gogoratzen ditugun bi apaiz agurgarri, don Joakin Bermejo eta don Juan Aranguren, medio zirela, gu txino eta indiar bezala jantzita prozesioan ibili izan bagara haurrak ginela, Aitzolen eragin handiz izan zen; bere eskuetan hartzen zuen dena zabaltzen baitzen Euskalerrian indar handiarekin; Elizako

bidetik, honen zerbitzuan zuzenki zegoenean, eta euskal kulturako lanetan, hauen arduretan lanean jarri zenean.

Honetarako sortu zuen Aitzolek "*Euskaltzaleak*", eta hara nola ikusten duen bere eragina don Manuel Lekuonak:

"Ikuspen zorrotzeko gizona zen; intuizio handikoa; 'Euskaltzaleak' kultur erreminta bezala sortu zuen, politikatik at, kanpora, alderdietatik neutral. Bazkide gehienak nazionalistak ziren, baina hain xuxena zen neutralitate hau gordetzen, nazionalista ez ziren asko zen hor lanean, bai tradizionalistak, eta baita monarkikoak berak ere. Bestalde, euskaldun intelektualentzat jakin zuen sortzen Donostiako Boulevard-eko Batzokitik aparte, "Eusko Pizkunde" Avenidan, eta baita goimailako euskal zientziak bide bezala hartu zuen *Yakintza* aldizkari ederra ere".

Aitzolengan eragina izan zuen Bertsolaritza don Manuelek emana izan zuen hitzaldia aipatzen da askotan: hitzaldi hau noizkoa zen galdetu nion don Manueli.

Oñatiko Kongresoaren (1918) hurrengoa, bigarrena, Iruñakoa izan zen (1920): "Enseñanza y cuestiones económico-sociales"); hirugarrena, Gernikan (1922: "Lengua y Enseñanza"); laugarrena, Gasteizen (1926: "Orientación y Enseñanza profesional"), eta bostgarrena Bergaran (1930: "Arte popular Vasco"), eta beste hizlarien artean don Manuelek "De métrica vasca" eraman zuen gai: "Uda hortan prestatu nuen", esaten dit, baina gripe txar bat zabaldu zen eta hurrengo urteko urtarrila-otsailean emanak izan ziren hitzaldiak, eta neuk nirea 1931go otsailean eman nuen. Hemen ere ez zuen Aitzolek hitzaldia entzuterik izan; ez zen etorri; gaiso zen, nonbait. Nola nahi, nik izan nuen egun hartan *tobera-jotzaileaz* eta *koplariaz* hitzegiteko denbora, baina *bertsolaritzaz* egiteko ez, eta beste egun baterako utzi nuen azken gai hau; halaxe agindu nion hitzaldian zegoen Elorza Diputatu Nagusiari, Donostian egingo nuela, Eusko-Ikaskuntzak Diputazioko ganbaran zuen egoitzan. Eta eguna heldu zenean han zen Aitzol, bai, eta esandakoak entzun zituenean esan zidan egitan handik aurrerakoa Bertsolaritzari eskaini behar zitzaioala merezi zuen arreta".

Aitzol ordurarte gehienbat poesiari lagundu zion, laguntza handia!, orduan eman baitziran ezagutzera irabazi zuten "Lauaxeta" (1930), "Lizardi" (1931), Joakin de Bedoña, "Loramendi" (1932), Patxi Etxeberria andoaindarra (1933), Zaitegi (1934), L. jauregi, "Jaurtakol" (1935) eta Iñaki Otamendi (1936), eta hauen inguruan ibili ziren beste olerkari batzu, eta hoiegan zuen jarria Aitzolek itxaropen guztia euskararen eta euskal kultura suspertu eta jasotzeko; baina konturatu zen, euskal kulturaren egoera ahozkoa zela, ez idatzia, eta orain arte hartutako bideaz gainera, apalagoa zen bertsolaritza zela herri xeheari gorabideko lehen pausoa, eta hemendik sortu ziren laster garai hartako "Bertsolari guduak", Aitzolen eraginez eta honi Ernandorenak eta bestek emandako laguntzarekin. Lehenengoa Donostiako Gran Kursalen, 1935an, eratu zen, eta "Basarri"k irabazi; bigarrena 1936go urtarrilaren 19an, "Victoria Eugenia" antzokian, hau "Txirrita"k irabazia.

Hauek izan ziren bertsolaritzari emandako bultzada ederrak; gerrak amaitu zituen denak, baina beste gai askotan gertatu zen bezala, gure herriak berriitu ditu indartsu don Manuel eta Aitzolek orduan sortutakoak.

Aitzolen heriotza gertutik pasa zitzaion don Manueli: hau bera gordeta zegoela jakin zuen berri ikaragarria, aurretik bere anaia eta apaiza zen Martin Lekuonarena jakin izan zuen bezala.

Don Manuel Lekuona eta don Jose Ariztimuño "Aitzol", bi apez euskaldun, euskaltzale, bere herriko kulturaren zerbitzuan langile porrokatu izan zirenak; bere apezgoari inoiz uko egin gabe; beste herrietakoek bereak dituzten kulturak, egoki den bezala, defendatzen dituzten gisa, hauek Euskalherriaren ezaugarri diren hizkuntza eta kultura defendatu zituztelako. Diferentzia honekin: hauek onartu egiten dituzte, batzutan ofizialki saritu ere; eta gure kasuan, berriz, besterik gabe jarraiki, eta batzutan, eran, hil!

Hau da, gure Herriaren sorte bera jasan dutela.

Ez da Euskal Elizaren kaltetarako izan.